

UDALBURUA
Josu Artetxe

AIARAKO UDALAK 2015eko OTSAILAREN 26an
EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA.

ZINEGOTZIAK

Lauren Uria
Esteban Hernando
Aitziber Alava
Garbiñe Alaña
Ander Vergara
Esmeralda Martínez
José Antonio Bartolomé
Iratxe Parro
Iraida Saenz de Lafuente
José Luis Pedruzo

Arespalditzan, udaletxeko bilkura-aretoan, bi mila eta hamabosteko otsailaren hogeita seian, hemeretziak direnean, Udaltzako Osoa bildu da, ohiko bilkura egiteko. Alkate Josu Artetxe Arana jauna da mahaiburua eta albo batean aipatutako zinegotziak bertaratu dira, behar bezala deituta, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 46 b) artikuluan xedaturikoaren arabera. Neuk, Naiara Lazpita Marcos idazkari andreak, lagundu ditut eta ekitaldiaren fede eman dut.

Jarraian, Eguneko Aztergaien Zerrendan dauden gaiak jorratu dira.

IDAZKARIA

Naiara Lazpita

Alkate jaunak arratsalde on esan eta osoko bilkurara ongi etorria eman die guztiei.

Eguneko aztergaien zerrendako puntuei heldu aurretik, esan da martxoko ohiko bilkura hilaren 19an egin beharko dela (osteguna), baina jaieguna dela. Beraz, erabaki da martxoko ohiko bilkura astebete atzeratzea. Hilaren 26an (osteguna) egingo da, ohiko ordutegian.

Eta besterik gabe, eguneko aztergaien zerrendan jasotako gaiak buruz eztabaidatzen eta bozkatzeko hasi dira.

1.- Onestea, bidezkoa bada, 2015eko urtarrilaren 22ko ohiko bilkuraren akta.

Horren inguruko beste adierazpenik egin ez denez, bertaraturako korporazioko kideek aho batez onetsi dute akta.

2.- Onestea, bidezkoa bada, Zerbitzu Publikoak emateagatiko eta Administrazio Jarduerak egiteagatiko Tasak araupetzen dituen Ordenantza Erregulatzaileko aldaketak.

Ez da gaiari buruzko beste ezer esan, eta bozketa egin da. Aho batez onetsi da.

Eta hori dela bide, eta

IKUSI DA.- Korporazioak ikusi du beharrezkoa dela aldatzea Zerbitzu Publikoak emateagatiko eta Administrazio Jarduerak egiteagatiko Tasak araupetzen dituen Ordenantza Erregulatzailea.

IKUSI DA.- Ogasuna, Sustapen Ekonomikoa, Enplegua eta Kontu Bereziak Informazio Batzordeak 2015eko otsailaren 17an emandako aldeko irizpena.

Udalbatzak, aho batez, **ERABAKI DU:**

Lehenengoa.- Hasiera batean onestea Udal Zerbitzuak emateagatiko eta Administrazio Jarduerak egiteagatiko Tasak arautzen dituen Ordenantzaren honako aldaketa hauek egitea:

- *Ordenantzaren izenburua aldatzea. Izen hau izango du: “Zerbitzu publikoak emateagatiko eta administrazio-, kultura-, kirol-, gizarte-jarduerak, gizarte ongizatekoak eta pertsonak*

eta ondasunak babestekoak egiteagatiko, eta kirol-instalazioak erabiltzeagatiko tasak araupetzen dituen ordenantza.”

- 3. artikuluan dagoen testuari hau gehitu zaio: “baita Udalaren kirol-instalazioak erabiltzea ere.” Beraz, 3. artikulua honela gelditu da:

“3. artikulua

“Udalak zerbitzu bat emateak edo jarduera bat gauzatzeak ezartzen du zergaia, izan eskatu egin delako, izan partikularren egintza edo hutsegiteen ondorioz zeharka eragin delako. Orobat kirol-instalazioak erabiltzeari dagokionez.”

- 4. artikuluko 1. puntuan.- Testuari hau gehitu zaio: “edo instalazioak erabiltzea.” Beraz, 4. artikuluko 1. puntua honela gelditu da:

“4. artikulua

1.- Subjektu pasiboak dira, zergadun diren heinean, pertsona fisikoak, pertsona juridikoak eta Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 1.-. eta 33. artikuluetan ageri diren erakundeak, zerbitzuak edo jarduerak eskatzen badituzte, edo instalazioak erabiltzea eskatzen badute, edo horien onuradun badira edo horiek ukitzen badituzte.”

- 5. artikulua a) atalean.- Testuari hau gehitu zaio: “edo instalazioak erabiltzeari.” Beraz, 5. artikulua a) atala honela gelditu da:

“Tasak derrigor ordaindu behar dituzte:

a) Partikularrek hala eskatuta emandako zerbitzu edo gauzatutako jardueri edo instalazioak erabiltzeari dagokienez: eskaera egin dutenak.”

- 7. artikuluan.- Hauxe dioen lekuan: “Salbuespenak”. Hau gehitu behar da: “murrizketak, hobariak”. Hauxe dioen lekuan (...) “aplikatzeko xedapen orokorretan”. Hau gehitu behar da: “udal-ogasunari aplikatuko zaizkion xedapen orokorretan edo Ordenantza honetako eranskinen epigrafeetan.” Beraz, 7. artikulua honela gelditu da:

“7. artikulua.-

Salbuespenak, murrizketak, hobariak edo bestelako onura fiskalak udal-ogasunari aplikatuko zaizkion xedapen orokorretan edo Ordenantza honetako eranskinen epigrafeetan ezarritakoaren arabera emango dira.

- 10. artikuluan.- Paragrafoari hau gehitu zaio:

“(…) instalazioa erabiltzen denean. Nolanahi ere den, zenbateko osoa edo zati bat aldezturik aurkezteko eskatu ahal izango da.

Tasaren izaera materialak tasaren maiztasun jakin bateko sortzapena dakarrenean, eta hala ezartzen denean Ordenantza honen eranskinaren epigrafe egokian, sortzapena urte bakoitzaren urtarilaren lehen gertatuko da, eta zerga-aldia urte naturala izango da, zerbitzua edo jarduera hasten edo bertan behera uzten den kasuetan izan ezik; halakoetan, zerga-aldia egokitzeko, kuota hainbanatuko da, dagokion epigrafean ezarritakoari jarraikiz.”

- 11. artikuluan.- Paragrafoari hau gehitu zaio:

“(…) Nolanahi ere den, aukera emango da tasak autolikidazio-araubidean kobratzea eskatzeko.

Zerbitzu publikoa, jarduera edo instalazioaren erabilera eman edo gauzatu gabe geratzen bada subjektu pasiboarekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik, dagokion zenbatekoa itzuliko da.”

- X. atala (Azken xedapena). Honela geldituko da:

“Ordenantza fiskal hau eta bere eranskinak, egungo idatzaldian, 2015eko _____(a)ren ____ (e)(a)n onetsi zen behin-behinean, eta urte bereko _____(a)ren ____ (e)(a)n behin betiko. ALHAOn osorik argitaratzen den egunaren biharamunean hasiko da bere indarraldia eta indarrean jarraituko du aldatzea edo indargabetzea onetsi arte.

- Eranskina aldatu da. I. ERANSKINA izango da orain, eta honela gelditu da:

I. ERANSKINA

KIROL INSTALAZIOAK ERABILTZEA: UDAL IGERILEKUAK

Taula: erabiltzaileen abonuen kuotak eta eguneko sarrerak.

TARIFA:

UDAKO SASOIKO ABONUA (BAZKIDEAK)

1.- UDALERRIAN ERROLDATUTAKO PERTSONAK

a) Familiako abonua (seme-alabek 14 urte bete arte)		28,00 €
a) Banakako abonua, 5 urtetik 17 urte bete arte		10,00 €
c) Banakako abonua 18 urtetik gorakoentzat	19,00 €	
d) 65 urtetik gorakoak	5,00 €	
e) 5 urtetik beherakoak	Doan	

2.- UDALERRIAN ERROLDATU GABEKO PERTSONAK

a) Familiako abonua (seme-alabek 14 urte bete arte)		48,00 €
a) Banakako abonua, 5-17 urte bete bitartean		16,00 €
Banakako abonua 18 urtetik gorakoentzat	29,00 €	
d) 65 urtetik gorakoak	11,00 €	
e) 5 urtetik beherakoak	Doan	

EGUNEROKO PASEAK:

3.- LANEGUNETAKO TARIFAK

a) Sarrerak, 5 urtetik 17 urtera artekoentzat		1,80 €
b) Sarrerak 18 urtetik gorakoentzat	2,65 €	
c) 65 urtetik gorakoak	1,30 €	
e) 5 urtetik beherakoak:	Doan.	

4.- JAIEGUNETAKO TARIFAK

a) Sarrerak, 5 urtetik 17 urtera artekoentzat	2,70 €
b) Sarrerak 18 urtetik gorakoentzat	3,70 €
c) 65 urtetik gorakoak	1,50 €
e) 5 urtetik beherakoak:	Doan.

OHARRAK.-

- Eskatzen den adina hasitako urtean bete behar da (urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra).
- 5 urtekoak eta 5 urtetik beherakoak doan sar daitezke udako igerilekuetan.

Familiatzat joko dira:

- Bikote ezkonduak edo izatezko bikoteak.
- Aurretik aipatutakoak, 14 urtera arteko seme-alabak dituztenak.
- Guraso bakarreko familiak, 14 urtera arteko seme-alabak dituztenak.

Egiaztagiriak:

-Adina NANA aurkeztuz egiaztatuko da eta 14 urtetik beherakoentzat, NANA ez badute, familia liburuaren kopiaren bidez.

- Senidea dela egiaztatzeko, familia-liburua edo erroldatze kolektiboaren agiria aurkeztu beharko da.

APLIKATZEKO ARAUAK.-

Instalazioak erabiltzeko sarbidea aldioro izango da baimendutako gehieneko edukieraren araberakoa.

Igerilekuetako lehenengo abonatu-txartela doakoa da. Berritu egin behar bada, galdu, hondatu, etab. egin delako, 1,00 €-ko tasa ordaindu beharko da.

HOBARIAK ETA/EDO SALBUESPENAK.-

Instalazio hauen erabiltzaileen egoera sozio-ekonomikoa aintzat hartuta, tarifa honetan ezarritako tasei honako hobari eta salbuespen hauek ezarriko zaizkie:

Salbuespenak:

1.- Irabazteko xederik gabeko erakundeek hezkuntza-arloan sustaturiko elkartruke-programetan edo GKE-ek sustaturiko aldi baterako harrera-programetan sartutako pertsonak.

Baimen bereziaren bidez doan sartzea.

Egiaztapena: Pertsona/erakunde eskatzaileak idatziz egingo ditu eskaerak, baimenaren aldia hasi baino gutxienez 15 egun lehenago. Eskaera horri erantsi egingo zaizkio adierazitako eskakizunak betetzen dituela adierazten duten agiriak.

2.- Ezintasun fisikoak, psikikoak edo sentsorialak dituzten pertsonak aukera izango dute kuotarik ordaindu behar ez izateko, betiere lanbide arteko gutxieneko ordainsaria gainditzen duten zenbatekorik jasotzen ez badute eta Aiarako Udalean gutxienez sei hilabete eman badituzte erroldatuta.

Hobariak:

1.- Aiarako Udalean erroldatuta dauden eta bazkide-txartela duten erabiltzaileek, familia ugari bateko kide badira eta 18 urtetik beherakoak badira (urte hori barne), % 30eko hobaria izango dute abonatu-kuotan.

Egiaztapena:

- Familia ugariaren titulua, familia-gunea osatzen duten kide guztiak jasotzen dituena.”

Bigarrena.- Jendaurrean ikusgai jartzeko 30 egun balioduneko epea irekitzea, ebazpena ALHAOn argitaratzen denetik aurrera zenbatzen hasita. Epe horretan, edozein interesdunek aurkeztu ahal izango ditu bidezkoztat jotzen dituen alegazioak. Udalbatza osoak aztertuko ditu horiek, behin betiko onetsi baino lehen. Alabaina, behin-behineko onespeneraren inguruko alegaziorik aurkeztu ez bada, hasiera batean onetsitakoa behin betikotu egingo da, eta testu osoa ALHAOn argitaratuko da.

Hirugarrena.- Ebazpen hau ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Laugarrena.- Ordenantzaren aldaketa hauek ordenantzaren testu osoa ALHAOn argitaratzen denean sartuko dira indarrean.

3.- Onartzea, bidezkoa bada, "Luiaondoko erabilera anitzeko eraikina zaharberritzea" obraren bigarren ziurtagiria, 2015eko urtarrilekoa. Guztira 32.914,94 euro dira (BEZa barne).

Idazkariak esan du ziurtagiri horri eta etorkizuneko beste batzuei aurre egiteko, kreditua gaituko duela, Arabako Foru Aldundiaren eta Erein-en diru-laguntzaren kargura, gastuen partida bat gaitzeko.

Ez da gaiari buruzko beste ezer esan, eta bozketa egin da. Aho batez onetsi da.

Eta hori dela bide, eta

AINTZAT HARTU DA.- Udalbatza osoaren 2014ko azaroaren 17ko ebazpenaren bidez, ERAIKUNTZA BIRGAIKUNTZA ARTAPENA, SL enpresari esleitu zitzaion "Luiaondoko erabilera anitzeko eraikina zaharberritzea" obra exekutatzeko kontratua, honako zenbateko honetan: 635.642,68 € eta BEZari dagozkion 133.484,96 €.

IKUSI DA.- Eraikuntza Birgaikuntza Artapena, SL enpresak aurkeztutako 2. ziurtagiria eta faktura, 32.914,94 eurokoa (BEZa barne).

AINTZAT HARTU DA.- Obra-zuzendari D. P. O. jaunak emandako oniritzia.

AINTZAT HARTU DA.- Obrak eta Zerbitzuak Informazio Batzordeak 2015eko otsailaren 17an emandako aldeko irizpena.

Udalbatza Osoak honako hau **ERABAKI DU**, aho batez:

LEHENENGOA.- Onestea Eraikuntza Birgaikuntza Artapena, SL enpresak igorritako 2. ziurtagiria. Guztira 32.914,94 euro dira (BEZa barne). Bestalde, aipatutako gastua onestea.

BIGARRENA.- Diruzaintzari agintzea 32.914,94 euro ordaintzeko Eraikuntza Birgaikuntza Artapena, SL enpresari.”

4.- Udaleko Kontu-hartzaitzaren barne-kontrolari buruzko urteko txostenaren berri ematea (2014 ekitaldia).

Iratxe andreak (AB) galdetu egin du txostenaren 5. orrialdean aipatutakoaz; zehazki, operarioen aldi baterako kontratazioaz. Jakin nahi du Udalak kontratatu nahi badu, zer txosten mota bildu behar den.

Idazkariak erantzun dio Kontu-hartzaitzaren txosten honen helburu bakarra zela kontratazioa egin zenean egindako ohartarazpenak jasotzea edo aipatzea. Ondoren, esan du legeak ezartzen duela zenbait kasu edo zerbitzutan langileak kontratatu ahal direla, eta Kontu-hartzaitzaren txostenean jasotakoa interpretazio-irizpidea dela.

5.- Honako hauen berri ematea:

- **2014ko urriko, azaroko eta abenduko kontaketa-aktak.**
- **2014ko urriko, azaroko eta abenduko gastuen eta diru-sarreraren balantzea.**
- **2014ko urriko, azaroko eta abenduko libreten egoera.**
- **2014ko urriko, azaroko eta abenduko kreditu-aldaketak.**

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

6.- Alkatetza-dekretuak:

- **Erref.- 9/15.- JAAU.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, harrizko horma bat eraikitzeko, Menagaraiko partzela bat ixteko.
- **Erref.- 10/15.- VUU.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Zuhatzako etxebizitza baten fatxadaren beheko aldea sendotzeko eta junturak ixteko.
- **Erref.- 11/15.- Zuatzako Administrazio Batza.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Zuhatzako antzinako eskolen etxeko leihoak aldatzeko.
- **Erref.- 12/15.- Maderas Murga, SL.-** Jarduera-espeditari buruzko agiri gehiago eskatzea.
- **Erref.- 13/15.- PAG.-** Fidantza eskatzea, Llantenoko eraikin baten hormen zati batean eraisteko, hegoaldeko fatxada berreraikitzeke eta perimetroko hormak sendotzeko lanetatik eratorritako hondakinak egoki kudeatzen direla bermatzeko.
- **Erref.- 14/14.- FCB.-** Agiri gehiago eskatzea, Luiaondoko partzela bateko familia bakarreko etxebizitza eraikitzearen inguruan.
- **Erref.- 15/15.-** Onartzea Ur-horniduraren eta Estolderiaren Zerga Erroldak (2014ko 4. lauhilekoa).
- **Erref.- 16/15.- OMO.-** Udal-lizentzia ematea, Murgako 4. poligonoko 339 partzela bereizteko.
- **Erref.- 17/15.- OMO.-** Agiri gehiago eskatzea, Murgako partzela bateko familia bakarreko etxebizitza eraikitzearen inguruan.
- **Erref.- 18/15.- MILU.-** Lehenengo okupazioko lizentzia ematea, Llantenoko familia bakarreko etxebizitzarako.
- **Erref.- 19/15.- Eusko Jaurilaritza.- Hezkuntza Saila.-** Amaitutzat ematea Etxaurren Ikastolako oztopo arkitektonikoak desagerrarazteko obrarako lizentzia.
- **Erref.- 20/15.- Axpo Iberia, SL.-** Likidatzea lurzorua okupatzeagatik tasa (2014ko 4. lauhilekoa).
- **Erref.- 21/15.- HC-Naturgas Comercializadora Último Recurso, SA.-** Likidatzea lurzorua okupatzeagatik tasa (2014. urtea).

- **Erref.- 22/15.- Naturgas Energía Distribución SAU.-** Likidatzea lurzorua okupatzeagatiko tasa (2014ko 4. lauhilekoa).
- **Erref.- 23/15.- Naturgas Energía Comercializadora, SAU.-** Likidatzea lurzorua okupatzeagatiko tasa (2014ko 4. lauhilekoa). Kontzeptua: gasa.
- **Erref.- 24/15.- Naturgas Energía Distribución S.A.U.-** Likidatzea lurzorua okupatzeagatiko tasa (2014ko 4. lauhilekoa). Kontzeptua: elektrizitatea.
- **Erref.- 25/15.- Onestea F/2014/13 zenbakiko fakturen kontabilitate-zerrenda.**
- **Erref.- 26/15.- FCB.-** Nekazaritza-biltegia handitzeko obra-espeditari eta alde zurreko komunikazio-espeditari buruzko agiri gehiago eskatzea.
- **Erref.- 27/15.- JBU.-** Agiri gehiago eskatzea, Izoriako txakurtoki bat eraikitze obrarako lizentziaren espeditari buruz.
- **Erref.- 28/15.- AGM.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Antojo tabernako barra kendu eta aldatzeko.
- **Erref.- 29/15.- LBRI.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Luiaondoko Barrena kaleko eraikin baten kanpoko balkoia konpontzeko.
- **Erref.- 30/15.- Alkatearen eskuduntzak eskuordetzea.**
- **Erref.- 31/15.- Naturgas Energía Distribución, SAU.-** Obra-lizentziaren espeditari buruzko agiri gehiago eskatzea.
- **Erref.-32/15.- AMU.-** Olabezar-en etxebizitza bat okupatzeko lizentzia.
- **Erref.- 33/15.- Tramame, SA.-** Zatitzea Udal honen zerga-zorraren ordainketa.
- **Erref.- 34/15.- Hnas. I. V., SC-** Jarduerarako udal-lizentzia ematea, Menoion behi eta ardi-haragirako abeltzaintza-naberako.
- **Erref.- 35/15.- JALL.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Izoriako etxebizitza baten kanpoaldeko fatxadan energiarekin lotutako lanak egiteko.
- **Erref.- 36/15.- CONSTRUCCIONES MOYUA, SL.-** Itzultzea Luiaondoko erabilera anitzeko eraikina eraberritzeko obraren lizitazioan aurkeztutako bermea.
- **Erref.- 37/15.- CONSTRUCCIONES OLABARRI.-** Itzultzea Luiaondoko erabilera anitzeko eraikina eraberritzeko obraren lizitazioan aurkeztutako bermea.
- **Erref.- 38/15.- JAVS.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Menoioko etxebizitza baten 1. solairuaren kanpoko arotzeria jartzeko.
- **Erref.- 39/15.-** Artxibatzea MMVE andrearen aurka abiarazitako espeditaria eta abiaraztea JJZV jaunaren izeneko hirigintza-egoera lehengoratzeari buruzko espeditaria.
- **Erref.: 40/15.- Menagarai-Beotegiko Administrazio Batza.-** “Argiteria publikoaren sarea sakabanatutako baserrietarako” obrarako lizentziari buruzko agiri gehiago eskatu zaizkio.
- **Erref.- 41/15.- Sojoko Administrazio Batza.-** Agiri gehiago eskatzea, Sojoko bolatokia egokitzeko obrarako lizentziaren espeditari buruz.
- **Erref.- 42/15.- AJEB.-** Agiri gehiago eskatzea, sailkatutako jardueraren alde zurreko komunikazio-espeditari buruz.
- **Erref.- 43/15.- MAMO.-** Agiri gehiago eskatzea, sailkatutako jardueraren alde zurreko komunikazio-espeditari buruz.
- **Erref.- 44/15.- MAMO.-** Amaitutzat ematea egur-biltegi gisa erabiltzeko higiezina eraikitze obrarako lizentziaren espeditaria.
- **Erref.- 45/15.- GGC.-** Agiri gehiago eskatzea, obrarako lizentziaren espeditari buruz.
- **Erref.- 46/15.- TYCO.-** Udal-biltegirako alarmaren hornidura eta instalazioa esleitzea.
- **Erref.- 47/15.- MAZL.-** Agiri gehiago eskatzea, obrarako lizentziaren espeditari buruz.

- **Erref.- 48/15.- AUZ.-** Bermea eskatzea, Izorian nekazaritzako tresnetarako etxola eraikitzeke obraren hondakinak egoki kudeatzen direla bermatzeko.
- **Erref.- 49/15.- MPMSDB.-** Jarduera irekitzeko lizentzia ematea, Izoriako partzela batean nekazaritza-biltegia jarduerarako.
- **Erref.- 50/15.- Onestea F/2014/14 zenbakiko fakturen kontabilitate-zerrenda.**
- **Erref.- 51/15.- FZG.-** Bermea eskatzea, Beotegin nekazaritzako tresnetarako etxola eraikitzeke obraren hondakinak egoki kudeatzen direla bermatzeko.
- **Erref.- 52/15.- AZG.-** Bermea eskatzea, Beotegin nekazaritzako tresnetarako etxola eraikitzeke obraren hondakinak egoki kudeatzen direla bermatzeko.
- **Erref.- 53/15.- Izoriako Administrazio Batza.-** Amaitutzat ematea hilerrirako sarbidea eta argiteria publikoa egokitzeko obrarako lizentziaren espedientea.
- **Erref.- 54/15.- POJ.-** Amaitutzat ematea Arespalditzako partzela batean tresnak gordetzeko etxola eraikitzeke obrarako lizentziaren espedientea.
- **Erref.- 55/15.- Elkarlan Asesores, Luiaondoko Restergo 7 eta Restergo 9 helbideetako jabekideen komunitateak.-** Irekitzeko lizentzia ematea, ibilgailuen gordelekurako.
- **Erref.- 56/15.- Construcciones Metálicas Ayala, SL.-** Agiri gehiago eskatzea, jarduera legeztatzeke lizentziaren espedienteari buruz.
- **Erref.- 57/15.- Construcciones Metálicas Ayala, SL.-** Agiri gehiago eskatzea, behin-behineko obrak legeztatzeke lizentziaren espedienteari buruz.
- **Erref.- 58/15.- SGG.-** Agiri gehiago eskatzea, obrak hasteko udal-lizentziaren espedienteari buruz.

José Luis jaunak (PP), 33/15 Dekretua dela eta, problematika guztia nola dagoen galdetu du; bereziki, epaiketarena.

Josu jaunak (Bildu) erantzun du aurreko egunean lekuko gisa bertaratu zela eta oraindik ez duela kontuari buruzko berririk. Baina, Joana Urruelarekin hitz egin du, Murgako alkatearekin, eta ez da oso optimista; izan ere, hark esan dio Eusko Jaurlaritzako teknikari batzuek justifikatu ere egin zutela Tramameko jarduketa. Ez dago kontuaren inguruko susmo onik.

Aipatutako dekretuari dagokionez, idazkariak azaldu du sei alditan ordaintzeko aukera eman dela, Informazio Batzordean esan zenarekin bat etorritz.

7.- Norberak lekarkeena.

- José Antonio jaunak (EAJ) esan du konturen bat argitu nahi duela, hor zehar dabilzan informazioak direla eta. Honako hau irakurri du:

“BILDUK Aiarako bizilagunen artean banatu duen informazioa dela eta, EAJ-PNV udal-taldeak honako hauek argitu nahi ditu:

1.- Editorialean, BILDUK hau dio: “Teknikoki kiebran zegoen Udala kudeatu behar izan genuen”.

Alabaina, 2011ko urriaren 20eko osoko bilkuraren aktaren 3. puntuan, José Antonio jaunak (EAJ-PNV) esan zuen Udala kiebran zegoelako ideia zabaltzen ari zela, hala prentsan nola irrastian; baina, Diruzaintzaren egoerak erakusten zuen hori ez zela horrela. Ezin da esan Udalaren egoera ekonomikoa kiebrakoa dela, eta informazio horiekin guztiekin psikosia eragiten da herritarren artean.

Lauren jaunak (BILDU) esan du gobernu-taldeak ez duela esan Udala kiebra-egoeran dagoenik. Udalaren egoera ekonomikoa ez da egokia, baina har daitezkeen erabakiek okertu egin dezakete.

Azaldutakoa dela eta, gure taldeak txosten bat eskatzen dio Udaleko Kontu-hartzailetzako Zerbitzuari. Txosten horrek islatu egin behar du zein zen Udalaren Diruzaintzaren egoera, egungo gobernu-taldeak bere lekua hartu zuen egunean.

2.- Uraren kudeaketari dagokionez, BILDUK hitzez hitz aipatzen du: "Irtenbide bat eman diogu araztegiaren eraikuntzari, Arespalditzako Administrazio Batza ere tartean sartuz. Guztira 22 konexio irregular zituen sarearekin. Zerbitzuaren sustatzaile onuradunak ere tartean sartu ditugu. Bada, hilabeteak joan dira alderdiekin hitz egiten. Are gehiago, Arespalditzako Batza aurka zegoen hasiera batean eta buruak ez zuen ordaindu nahi zegokion kostuaren zatia."

Ausarta izan behar da, gero, tanto hori bereganatzeko. Jakin ezazue prozesua aurreko legegintzaldian hasi zela.

Arespalditzak ez zuela ordaindu nahi zegokiona? Eta BILDUren ustez, zer zegokion? Izan ere, jakin ezazue Batza honek azpiegitura horri egindako ekarpenak ez duela inolako zerikusirik alkate jaunak Arespalditzako kontzejuan azaldu zuenarekin.

Nola iradoki dezakezue Arespalditzako Batzak ez duela jarrera solidarioa, aintzat hartuta foru-planaren bidez egin duen ekarpenarekin finantzatu dela ia azpiegitura osoa?

3.- Gure taldearen asmoa ez zen itxiztat genuen gai bat berriz irekitzea, baina ikusita gobernu-taldeak (BILDU) bere agirian aipatzen duen kudeaketa ona, Multikiroldegiaren eraikina geldiarazteak izan duen eragin ekonomikoa dela eta ("30.000 euroko kalte-ordaina, 300.000 eskatzen zituzten arren")...

EAJ-PNV udal-taldeak gaiko teknikari eskudunaren txostena eskatu du, islatzen duena zein izan den multikiroldegiko zentroko harmailen eta estalkiaren kostua. Bere sasoian ordaindu zein eraikina eta gaur egun Udal honen ondarekoa da. Halaber, kokapenari eta egungo kokalekuari buruzko informazioa nahi da."

Lauren jaunak (BILDU) erantzun du, kiebraren kontua dela eta, esan nahi izan dutela aurreko gobernu-taldeak erabakitakoa zuzendu ezean, Udalean egoera horretara iritsiko zirela. Gainera, esan du Arabako Foru Aldunditik kontua nola konpondu aztertu zutenean, Udalak esku hartu zuela ere esan zutela.

Josu jaunak (BILDU), saneamenduaren kontua dela eta, esan du egia dela Arespalditzako Administrazio Batzak azkenean onartu egin zuela Zuhatzan egindako obraren ordainketan laguntzea, baina hasiera bateko egoera ez zen hori. Esan du bera bertaratu zela Arespalditzako kontzejuaren bilera batera, S. I. jauna alkate zenean, azaltzeko zergatik ordaindu behar zuen Arespalditzako Administrazio Batzak obraren kostuaren zati bat; izan ere, kontzejuaren aurreko bilera batean erabaki zuen ez ordaintzea adostutako saneamenduaren zatia. Kontzeju horretan berak argudiatu zuen 22 lotura ezegoki zeudela putzu horretan eta horien truke ez zela ezer ere ordaindu. Eta planteamendu horien ondoren, herriak onartu zuen adostutako zatia ordaintzea.

Josu jaunak zehaztu du esan nahi izan duena dela lehenengo eta behin, kontzejuak ez ziola aurre egin nahi izan kostuari.

José Antonio jaunak (EAJ) esan du ez dagoela ados esaten denean Arespalditzako Administrazio Batzak ez duela lagundu nahi. Arazoa izan zen ebazpen hartan Arespalditzari 3-1 koefizienteko ordainketa eman zitzaioa; hots, hirukoitza ordaindu behar zuen lotune bakoitzeko, eta horregatik, hasieran, Kontzejuak neurrigabetzat jo zuen, eta ezetz erabaki.

Hasiera batetik, Arespalditzako Administrazio Batza Zuhatzako Administrazio Batzarekin eta Ainhoarekin, Udaleko alkate andrearekin bildu zen, irtenbide bat bilatzen saiatzeko. Kontzejua ez zegoen erabat ados zenbateko ekonomikoarekin edo Arespalditzako Batzari esleitutako koefizientearekin.

Josu jaunak esan du berak S. I.rekin hitz egin zuenean, kontzejuaren orduko lehenengo bilera haren ondoren, esan zitzaion bakarra zen ez laguntzea erabaki zela.

José Antonio jaunak esan du kontzejuaren lehenengo bilera hartan ez laguntzea erabaki zela, Arespalditzako Batzari ezarritako proportzioa edo ehunekoa gehiegikoa zelako, neurrigabetzat eta gehiegikotzat jo zen. Bada, etxez etxe zabaltzea Administrazio Batzak ez zuela lagundu nahi... Ez zaio egoki iruditzen; izan ere, ez zeuden obra egiten laguntzearen aurka, besterik gabe, Arespalditzari ezarritako ehunekoaren aurka zeuden.

- Iratxe andreak (AB) galdetu egin du Arespalditzako Zaharren Egoitza handitzeari buruzko espedienteaz. Esan du informazioa nahi dutela Alday Fundazioarekin eta Arespalditzako Batzarekin gai horren inguruan egindako bilerez.

José Antonio jaunak (EAJ) esan du egindako azken bileran ez zela Alday Fundazioa egon; izan ere, landa-bisita izan zen, putzua bisitatzeko, eta URAko, Kantauriko Urkidetzako, Udaleko eta Arespalditzako Batzako teknikariak izan ziren bertan. Gabezia handia atzeman zen orduan: euri-uren sarea ez zegoen bereizita. Adierazi du URAkoei galdetu zitzaizela EDAR txiki bat eraikitzeke baimena emango ote luketen. Teknikariak ezetz erantzun zuen, hobe zela han zegoena optimizatzea. Ur Partzuergoaren konpromisoa lortu zen, diagnostiko bat egiteko, saneamendua nola zegoen aztertzeke.

Josu jaunak (BILDU) esan du URAko teknikariak hitzez hitz esan zuela putzu horrek ez duela ezertarako balio, askoz hobeto garbitu beharko litzatekeela. Josu jaunak esan du ez dakiela zer-nolako garbiketa egin beharko den han.

Josu jaunak esan du kontu honetan inork ez duela errurik, ez duela nahi inork pentsatzea errua inori egotzi nahi zaiola. Denok gara errudun. Egoeraren diagnostikoa egiten saiatzen ari gara, gauzak nola dauden jakiten eta irtenbideak bilatzen. Beharizanik gabe ari gara muturtzen. Hitz egiten jarraitu eta esan du organismo guztiak jarri behar dituztela martxan: URA, Arabako Foru Aldundia, Kantauriko Urkidetza, Udala eta Administrazio Batza. Ez dago kontua atzeratzen jarraitzerik. Arazoak daude saneamenduari eta hori argi dago, baina diagnostiko eta plangintza bat egin behar da, eta ziur asko, inbertsio handiak. Beraz, albait arinen jarri behar dugu martxan.

Josu jaunak esan du gobernu-taldeak ez duela izan eta orain ere ez duela asmorik errua inori egozteko. Ibiltzen hasi nahi dute, arazoa konpontzeko.

Ander jaunak (EAJ) esan du 1999an Administrazio Batza batzuek milioietako inbertsioak egin zituztela jada, saneamendua aldatzeko. Baina, azpiegitura horiek ez dute balio. Herri batzuk oraindik ari dira obra haiek ordaintzen. Eta orain esaten zaigu beste inbertsio bat egin behar dela saneamenduan.

Josu jaunak esan du hori adierazi dutela URAko teknikariek. Errealitatea hori da.

Ander jaunak esan du Administrazio Batzak bultzatzen ari direla, partzuergoa osatzeko. Hori da gobernu-taldearen jarrera. Baina Batza batzuek, hala nola Salmantongoak, ez dute Ur Partzuergoan sartu nahi.

Josu jaunak erantzun dio gobernu-taldearen helburua dela arazoa konpontzea, lanean hastea irtenbideak mahaiaren gainean jartzeko.

Lauren jaunak (BILDU) esan du Udalak presioa duela gai horretan; izan ere, edozein hirigintza-hazkunderen aurrean, URAk aurka egingo du. Horregatik ari dira arazo hau konpontzeko pausuak ematen.

Iratxe andreak (AB) esan du bere galderari ez diotela erantzun. Esan du Partzuergoak egingo duela diagnostiko hori, eta galdetu du eperik ezarri ote den, zer egin behar ote den espedientea desblokeatzeko eta ea putzua garbitzea nahikoa den.

Josu jaunak erantzun dio ez dakiela ondo, gero URAk etorri beharko duela garbitze-lan hori egiten eta dagokionari buruzko informazioa ematera. Beharbada orduan esango digu nola desblokeatu egoera hau.

Iratxe andreak galdetu du nork egingo ote duen garbiketa hori.

José Antonio jaunak (EAJ) erantzun du enpresa baten bidez egin daitekeela; zehazki, Udalaren aginduz oro har halako garbiketak egiten dituen enpresaren bidez. Gerora ikusiko da nola finantzatzen den. Esan du Juan Carlosek, Udaleko langileak, Ur Partzuergoko gerentearekin hitz egin zuela, jarduketa koordinatzeko. Horrela, garbiketa egiten denean, teknikariak prest egongo dira ikuskatze-lana egiteko.

Iratxe andreak esan du egoitzako espedientea desblokeatzeko asmoa badago, datak jarri behar direla, egin beharreko guztia egiteko.

- Aldundiaren hainbat errepidetan arazoak daudela esan du. Konpontzeko eskatuko zaio Aldundiari.
- Iratxe andreak (AB) galdetu du uraren tasak igo ote diren; izan ere, Partzuergoak bere tasak igo ditu. Ordenantza aldatu beharko den galdetu du.

Idazkariak erantzun dio ordenantza berrikusiko duela, ea zer dagoen jasota eta ea aldatu behar den.

- Iratxe andreak esan du jakin dutela langileak birkokatu direla edo birkokatuko direla. Galdetu egin du hori egia ote den.

Josu jaunak (BILDU) erantzun dio oraingoz proiektuaren erredaktoreak etorri direla, neurketak egitera eta beste aukera batzuk aztertzea. Hilaren bostean ekarriko dute proposatzen duten banaketaren planoan.

José Antonio jaunak (EAJ) esan du espazioaren banaketa postu bakoitzean egingo diren zereginen arabera izango dela.

Josu jaunak erantzun du dena hasi direla aztertzen eta ez dela ezer definitu.

- José Luis jaunak (PP) argiteria publikoa mantentzeko kontratuari buruz galdetu du.

Esteban jaunak (BILDU) erantzun du pleguen erredaktoreari eskatuko diola Batzordearen hurrengo bilerara bertaratzeko, azal ditzan eta zalantza guztiak egin ahal izateko.

Jorrazeko beste aztergairik ez dagoenez, alkate-udalburuak bilera bukatutzat eman du zortziak eta hogeit hamar minutu zirenean, eta aztertutako guztia eta hartutako erabakiak jasota gera daitezen, akta hau egin dut eta neuk, idazkariak, egiaztatzen dut, Arespalditzan, bi mila eta hamabosteko otsailaren hogeita seian.

OE
ALKATE-UDALBURUA

IDAZKARIA,

Izpta.: Josu Artetxe Arana

Izpta.: Naiara Lazpita Marcos.